



# EKINTZA, ERALDAKETA SOZIAL ETA PERTSONALA BULTZATZEKO ETIKA OINARRI HARTUTA

## Arlo orokorra

**1** >

Donostia-San Sebastian 2016rekin elkarlanean, Bakegonaldiak proiektuaren diseinua egin du Baketik, Europatransit programako giza-eskubideen urraketen inguruko 10 dokumentaletan oinarrituta: Mensajes de frontera (Ceuta), InDialogue (Belfast), Refugio Dresde (Dresden), La biblioteca humana (Wroclaw), Sonidos de resiliencia (Sarajevo), Democracia silenciada (Moscu), Fronteras compartidas (Pafos), Bailarines callejeros (Plovid), En proceso (Pristina) y Escuela en tránsito (Tesalonika). Dokumental horien unitate didaktiko eta lan-fitxak egin ditugu, etorkizunean gai horiek modu aktibo eta sortzaile batean lantzeko egonaldiak egiteko ikastetxeekin.

## Bake eta bizikidetzaren saila

**2** >

Baketik Gipuzkoako hainbat herritan martxan dituen proiektuetan, bakeare eta bizikidetzaren inguruko hainbat hitzaldi publiko antolatu dira.

**3** >

Elgoibarren, esaterako, Memoria partekatzen, Bizikidetzaren berria lantzen izenburupean egin ziren horietako bi, otsailaren 1ean eta 8an. Lehenengoan Jon Sarasua, Mireia Uranga eta Joxe Arregi izan ziren hizlari; eta bigarrenengoan Gorka Landaburu, Jurdan Arretxe eta Martin Garitano kazetariak.

**4 >**

Unnietan torturaren inguruko hitzaldi bat egin zen Paco Etxeberria mediku forentsearekin, eta 25ean "La mirada del otro" antzerki emanaldia eskaini zen, solasaldi batek jarraiturik.

**5 >**

Getarian urtarrilaren 25ean hitzaldia eskaini zuten Joan Jose Ibarretxe Lehendakariak eta Erreterriako Alkate Julen Mendozak.

**6 >**

Bestetik, Baketiketik Memoriaren Plaza proiektu ibiltarian kolaboratu du Getxon egin duen egonaldian. Zehazki 302 ikaslek parte hartu duten tailer edo lantegiak dinamizatu ditu eta 1.654 lagunek bisitatu duten erakusketako harrera lanak egin ditu.

**7 >**

Bake Prozesua Indartzeko Foro Soziala erakunde anitz eta pluralek batera nazioarteko erakundeekin elkarlanean burututako ekimen bat da. Haren xedea prozesua bultzatze arren euskal gizartearen parte-hartzea sustatzea da. Bake Prozesua indartzeko Foro Sozial Iraunkorreko kide den heinean, Baketiketik "Hitza armagabetu" izeneko proiektua jarri du abian, kazetariekin eta gaian aditu direnekin bake prozesuan hedabideek duten funtzioaz hausnartzea helburu duena.

**8 >**

Bestetik, Baketiketik parte hartuko du apirilaren 29an Foro Sozial Iraunkorrek antolatutako "Bizikidetzara eraikitzen" izeneko Hitzordua saioan. Herrietako bizikidetzara prozesuen inguruko mahai inguruan arlo honetan Baketiketik egiten duen lana aurkeztuko da.

**9 >**

Adi-adian programan parte hartzen jarraitzen dugu; hala, hiruhileko honetan bi biktimari laguntzen izan gara, Eibarko ikastetxe bateko bigarren zikloko ikasleei euren bizipena kontatzera joan direnean.

**10 >**

Gogora Institutuarekin eskuz esku gaude lanean, eta Euskadiko herrietatik sinbologia frankista kentzeko programan laguntzen ari gara, bisitak eta bilerak eginez eta haiek kentzeko moduak aztertu eta iradokitzen.

### Elkartasun saila: Izeba proiektua

**11 >**

Hiruhileko honetan adin txikiko babestutako hiru pertsonen eta norbanako edo familia boluntarioen arteko hiru harreman berri jarri dira abian. Gaur egun 92 harreman aktibo daude Izeba Proiektuaren baitan. Horietatik 48 familia boluntarioen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babespean dauden adin txikikoen artekoak dira, eta beste 44 kasu, jada adinez nagusi egin diren gazteek eta euren Izeba familiak mantentzen dituzten harremanak dira.

**12 >**

Baketiketik Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako "Etorkizuna Eraikiz: Bizilagun sarea" jardunaldian parte hartu otsailaren 7an Orona Fundazioan. Jardunaldian zehar estatu mailan arrakasta izan duten esperientzia komunitarioak aurkeztu ziren, horien artean Izeba Proiektua. Sare komunitarioak eraikitze-ko Gipuzkoako Foru Aldundiak abian duen prozesuan kokatzen da jardunaldi hau, lurraldeko etorkizun sozial, ekonomiko eta politikoa bermatuko duten erronka nagusiak betetzea helburu duena.

**13 >**

Martxotik Deustuko Unibertsitateko ikasle bat lanean dabil Izeba Proiektuan, Babesgabe edo/eta Gizarte Gatazkan dauden Adingabekoen Esku-hartze eta Bitartekaritza Masterreko praktikak egiten.

**14 >**

Martxoaren 21ean, aurten "inguru eta komunitate jasangarriak" leloa zeraman Gizarte Lanaren nazioarteko egunaren harira, hitzaldi bat eskaini genuen Deustuko Unibertsitateko Donostiako campusean, honako izenburupean: "Izeba proiektua, babesik gabeko haurrentzako laguntza sarea".

### Antzerki Forumaren saila

**15 >**

Hiruhileko honetan Antzerki Forumeko taldeak 42 saio egin ditu guztira, Bide Segurtasuna, Eskola Jazarpeneren Prebentzioa eta Bizikidetzara Adiskidetuaren gaiekin.

**16 >**

Nafarroako Gobernuako Bake eta Bizikidetzara Sailarekin akordioa lortu du Nafarroako ikastetxe publiko eta kontzertatu guztiei Antzerki Forum saioak antolatzeko aukera emanez. Hala, Gobernuak diruz lagundurik, Aniztasuna, Eskola Jazarpenera edo Bizikidetzara Adiskidetuaren gaiak jorratu ahal izango dituzte. 2017an 88 saio egiteko aurrekontua onartu da.

**17 >**

Bestetik Bizikidetzaren Adiskidetuari buruzko saioak eskaini dira, Eta hik zer? antzezlanetik abiatuz, Giza Eskubide eta Bake Hezkuntzaren Elkarteen Foroan, Bilbon; eta Burlatako Kultur Etxean, Nafarroako Medicus Mundik antolatutako Gatazka, adiskidetze eta bizikidetzaren inguruko Jardunaldietan.

## Formakuntza saila

**18 >**

Aurreko urteotan bezala, Espainian deserriraturik dauden Bubiaren komunitatea biltzen duen elkarteak antolatutako bizikidetzaren eta gatazken inguruko programa diseinatzen eta garatzen lagundu du Baketik.

**19 >**

Baketik ikastaro hauek eskaini ditu, besteak beste:

- "Egunerokoan Iparra nola ez galdu" ikastaroa Lasarte-Oriako Danok Kide Elkartearentzako.
- "Gatazken lantze etikoa" ikastaroa Tolosako Bete Ikasten Esperientzia Eskolako kideentzako.
- "Gatazken lantze etikoa" ikastaroa, Tolosan, martxoaren 18an, gure ikastaroaren programaren baitan.

**20 >**

Nafarroako Gobernuaren programa baten eskutik Izan Proposamenean oinarritutako 6 ikastaro antolatu dira Nafarroako zenbait ikastetxetan, bai irakasleekin, bai gurasoekin. Zehazki honako herrietan egin dira: Iruñea, Garralda, Marcilla, Corella, Antsoain eta Altsasu.

**21 >**

Gainera, Tolosako Herrikide ikastetxearekin akordio batera iritsi gara Baketik eskaintzen dituen ikastaroak euren eraikinean antolatu ahal izateko. Alde batetik, ikastaroak eman ahal izateko toki egonkor bat lortu dugu eta, bestetik, gure ikastaroak ikastetxeko datu base osora zabaldu dira, oso erantzun ona jasoz.

## Hezkuntza saila

**22 >**

Baketik Bihotzetik Modulu didaktikoa berrikusi eta berrargitaratu du, eskolan euskal auzian izandako giza eskubideen urraketen biktimekiko elkartzuna lantzeko proposamena. 2011n egin zuen Baketik lehenengoz, eta 2016an, Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz, berrikusi eta berreditatu egin du. Bigarren Hezkuntzako irakasle zein hezitzaileentzako pentsatuta dago, eta batzuetan korapilatsua suertatu daitekeen gai garrantzitsu hau ahalik eta errazen lantzeko orientazioa eskaintzea du xede.